

**ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENEKO
ERAKUNDEA**

Ikuskaritza txostena,
2007ko abenduaren 31ra arteko Urteko kontuak
Eta 2007ko Kudeaketa txostena.

*Espainieraz idatzitako Urteko Kontuen Ikuskaritza-Txostenaren jatorrizko bertsioaren itzulpen librea.
Desadostasunik balego, espainierazko bertsioa nagusitzen da.*

URTEKO KONTUEN IKUSKARITZA-TXOSTENA

Ikuskatu ditugu Itzarri Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeko urteko kontuak. Erakunde horretako Gobernu-Batzordearen ardura da kontu horiek osatzea, eta, bertan, 2007ko abenduaren 31ra arteko egoera-balantzea, galera-irabazien kontua eta egun horretara arteko urtealdiko txostena daude bildurik. Gure ardura urteko kontu horiei buruzko iritzia azaltzea da, kontuak orokorrean harturik, eta, horretarako, ikuskaritza-lanean oro har onarturiko arauak erabili ditugu, hau da, aukerako proba batzuk eginez, urteko kontuak frogatzen dituen nabaritasuna aztertzea, eta beste alde batetik, kontu horien aurkezpena, erabilitako ikuskaritza-printzipioak eta eginiko estimazioak balioestea izan da gure beharra.

Merkataritza-legediarekin bat etorriz, 2007ko ekitaldiko egoera balantzearen, galeren eta irabazien kontuaren eta finantzazio taularen ondoan, aurreko ekitaldiko, hau da, 2006eko datuak adierazi ditu Gobernu Batzordeak, dagozkion konparazioak egiteko. Gure iritzia 2007 ekitaldiko kontuetara mugatzen da. 2007ko martxoaren 20an, 2006 ekitaldiko urteko kontuen ikuskaritza-txostena egin genuen, eta, bertan, kontu horien aldeko iritzia eman genuen.

Gure iritiz, arlo esanguratsu guztietan, erantsirik doazen 2007ko urtealdiko kontuetan zuzen adierazita daude bai Itzarri Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen ondarearen eta finantza-egoeraren 2007ko abenduaren 31ko irudia, bai eta egun horretara arteko urtealdian eginiko operazioen emaitzen eta lorturiko eta aplikaturiko baliabideen irudia ere, eta datu horiek denak interpretatzeko eta ondo ulertzeko behar bezain beste informazio ere badakarte, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetan aplikatu beharreko kontularitzako printzipio eta arauen haritik (txosten erantsiaren 4. puntua), eta horiek bat datoz aurreko ekitaldian erabilitako printzipio eta arauekin.

Txostenarekin batera aurkezten den 2007ko kudeaketa txostenak, enpresaren egoera, bere negozioen bilakaera eta beste zenbait arlori buruz gobernu batzordearen ustez egokiak diren azalpenak barneratzen ditu, eta ez da urteko kontuetako bat. Kudeaketa txosten horretan jasota dagoen kontularitzako informazioa eta 2007. urteko kontuetan jasota dagoen informazioa bat datozela egiaztatu dugu. Ikuskatzaileak garen aldetik, gure lana kudeaketa txostena neurri horretan egiaztatzea da, besterik ez, eta erakundeko kontularitzako erregistroetatik lortutakoaz bestelako informaziorik ez dugu guk aztertzen”.

PricewaterhouseCoopers Auditores, S.L.
(Jatorrizkoa espainieraz, M^a Victoria Mendia Lasak sinatua)

2008ko martxoaren 26a
Bazkide kontu-ikuskatzailea

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

EGOERAREN BALANTZEAK 2007KO ETA 2006KO ABENDUAREN 31N (Mila eurotan adierazita)

<u>AKTIBOA</u>	<u>2007</u>	<u>2006</u>	<u>PASIBOA</u>	<u>2007</u>	<u>2006</u>
IBILGETUA	544	656	GIZARTE ONDAREA	3.194	2.614
Hastapen gastuak	5	6	Mutua funtsa	30	30
Ibilgetu ez-materialak	448	523	Ekitaldiko soberakina	3.164	2.584
Erabiltzeko eskubideak	476	476	ZUZKIDURA TEKNIKOAK	115.470	63.664
Aplikazio informatikoak	196	196	Prestazioetarako zuzkidura teknikoak	115.470	63.664
Amortizazio metatua	(224)	(149)	HAINBAT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO SARRERAK	447	587
Ibilgetu materialak	91	127	Jasotako diru-laguntzak	447	587
Garraio elementuak	15	15	ZORRAK	158	181
Altzariak eta instalazioak	110	110	Zerga eta gizarte zorrak eta beste batzuk	19	19
Informatika eta datuen prozesu ekipamenduak	66	65	Hainbat hartzekodun	139	37
Amortizazio metatua (deduzitzekoa)	(100)	(63)	Hartzekodunak balioak erosteagatik	-	125
FINANTZA INBERTSIOAK	112.632	60.883			
Akzioak eta beste partaidetza batzuk	29.395	17.240			
Egin beharreko parkidetza-ordainketak	(4.135)	(2.300)			
Errenta finkoko tituluak	89.833	46.298			
Zuzkidurak (deduzitzeko)	(2.461)	(355)			
KREDITUAK	111	652			
Hainbat zordun	-	598			
Zerga eta gizarte kredituak eta beste batzuk	111	54			
URTALDI-AMAIERAKO DOIKUNTZAK	2.283	645			
EFEKTIBOA	3.699	4.210			
Banketxeak eta Kreditu Erakundeak	3.699	2.610			
Finantza aktibo likidoak	-	1.600			
	119.269	67.046		119.269	67.046

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAK: 2007KO ETA 2006KO EKITALDI AMAITUAK, ABENDUAREN 31N (Mila eurotan adierazita)

<u>GASTUAK</u>	<u>2007</u>	<u>2006</u>	<u>SARRERAK</u>	<u>2007</u>	<u>2006</u>
Ekitaldian sorrarazitako prestazioak			Ekitaldiko kuotak		
Prestazioak eta erreskateak	769	311	Asoziatuen kuotak	49.946	33.857
Traspasoak beste BGAE batzuetara	1	-	Traspasoak beste BGAE batzuetatik	46	52
	<u>770</u>	<u>311</u>		<u>49.992</u>	<u>33.909</u>
Zuzkidura teknikoak ekitaldia ixtean			Aurreko ekitaldiko zuzkidura teknikoak		
Prestazioetarako zuzkidura teknikoak	115.470	63.664	Prestazioetarako zuzkidura teknikoak	63.664	29.482
			Aplikazioak aurreko ekitaldiko emaitzaren zuzkidura teknikoei	2.584	584
				<u>66.248</u>	<u>30.066</u>
Administrazio gastuak			Inbertsioen sarrerak		
Soldatak	260	211	Finantza inbertsioen sarrerak	4.080	1.960
Gizarte zamak	59	52	Mozkina finantza eragiketengatik	2.500	1.733
Ekarpenak BGAEri	4	1		<u>6.580</u>	<u>3.693</u>
Ekitaldiko dotazioak amortizazioetarako	112	112			
Beste administrazio gastu batzuk	314	298	Ezohiko emaitza positiboak		
	<u>749</u>	<u>674</u>	Ekitaldiko emaitzari transferitutako diru-laguntzak	140	226
Inbertsio gastuak				<u>140</u>	<u>226</u>
Hainbat finantza-gastu	-	1			
Ekitaldiko dotazioa zuzkiduretarako	2.106	250			
Galerak finantza eragiketengatik	701	410			
	<u>2.807</u>	<u>661</u>			
Ekitaldiko superabita	<u>3.164</u>	<u>2.584</u>			
ZORRA GUZTIRA	<u>122.960</u>	<u>67.894</u>	HARTZEKOA GUZTIRA	<u>122.960</u>	<u>67.894</u>

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

2007KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIKO URTEKO KONTUEN MEMORIA (Mila-eurotan adierazia)

1. Izaera eta xede soziala

Itzarri, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea (aurrerantzean Erakundea) 2004ko uztailaren 27an sortu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalak eskatuta. 2004ko uztailaren 30ean, Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Sailak aipatutako erakundea eratzea, horren estatutuak, prestazioen araudia eta txosten ekonomikoa onartu zituen. Erakundea Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistro Ofizialean izena emanda dago, 260-A zenbakiarekin.

Hauxe da erakundearen gizarte helbidea: San Antonio, 2, Vitoria – Gasteiz (5. oharra).

Erakundea, eratu zenetik, bete beharrekoak ditu arau hauek: 25/1983 Legea, urriaren 27koa, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzkoa, 87/1984 Dekretua, otsailaren 20koa, aipatutako Legearen erregelamendua onartu zuena, eta 92/2007 Dekretua, maiatzaren 2koa, Ogasun eta Herri Administrazio, eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Sailena.

2007ko ekainaren 16an, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen jardura jakin batzuk arautzen dituen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretua sartu zen indarrean (eta aldi berean, otsailaren 20ko 87/1984 Dekretua aldatzen duena) (14. oharra).

Estatutuen arabera, honako hau da Erakundearen gizarte xedea: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalaren zerbitzura dauden langileek erretiratzea, ezintasun iraunkorra, heriotza edo iraupen luzeko langabezia kontingentziak eman direnean egiaztatu dituzten prestazio publikoentzako osagarria izatea, jarduketa eremua Euskal Autonomia Erkidegoa dela.

Bazkide babesletzat hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionala osatzen duten erakundeak. Horretarako, lehenbizi atxikitzeko akordio bat sinatu behar dute eta, gero, Erakundearen Gobernu Batzordeak akordio hori onetsi. Bazkide babesle bezala sartzeko eskabidea egin ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Aholku-Emaileko erakundeek.

Edozein pertsona fisiko izan daiteke bazkide oso, baldin eta erakundean bi urte egin baditu eta bazkide babesle baten zerbitzura lan egiten badu karrerako edo bitarteko funtzionario, estatutupeko edo bitarteko langile, lan-kontratuko nahiz behin-behineko langile edo goi-kargudun gisa.

Oro har, zerbitzuak eten edo zerbitzua eskaintzeari utzi bazaio eta, horren ondorioz, bazkideak ordainsari arruntak jasotzen ez baditu, bazkide babesleek eta bazkide osoak ez dute ekarpenik egingo. Azken hau, gainera, etendura egoeran dagoen bazkide izatera igaroko da.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

Onuradunak izango dira, Erakundeko bazkide oso izan zein ez, estatutu hauetan ezartzen den prestazioen bat jasotzeko eskubidea duten pertsona guztiak. Onuradun izaera ez da aitortuko harik eta prestazioen arautegian jasotzen diren prestazioak ordaintzea dakarren egitatea gertatu arte eta Erakundeko Gobernu Batzordeak hori aitortu arte.

Estatutuekin bat etorrira, Erakundea modalitate honetan dago: Ekarpn Zehaztuko eta Prestazio Zehaztugabeko Enplegua; beraz, ez du prestazioekin lotutako inolako arriskuren estaldura hartzen bere gain.

Erakundeko bazkide babesleek egindako ekarpenak bazkide osoei egotziko zaizkie euron ordainsari finkoen eta aldizkako araberan. Aldi berean, horiek borondatezko ekarpenak egin ahal izango dituzte.

Erakundeak hartutako sistema finantzarioa eta aktuariala finantza-kapitalizazio indibiduala da. Beraz, hauek dira kuantifikatuko diren prestazioak, kapitalizazio prozesuaren ondorioz, gertakizuna jasotzen denean: bazkide bakoitzaren ekarpenak gehi dohain bidezko ondare gehikuntzak eta horiei egoz dakiekeen inbertsioetatik lortutako errentak (egoz dakiekeen gastuak kenduta).

2. Prestazioen estaldura

Hauek dira Erakundeak estalitako gertakizunak:

- i) Bazkide osoaren erretiroa edo antzeko egoera. Ezin bada egoera horretara heldu, prestazioa jasotzeko 60 urte beteta izan behar dira, baldin eta bazkide osoak Gizarte Segurantzari edo Estatuko Klase Pasiboetan alta ematea eragin duen jardura utzi badu.
- ii) Bazkide osoaren ezintasun handia, erabateko ezintasun iraunkorra eta ezintasun oso iraunkorra.
- iii) Bazkide osoaren heriotza; gertakizun horrek alarguntasun edo zurtasun prestaziorako eskubidea eta beste oinorde batzueganako eskubideak sor ditzake.
- iv) Bazkide osoaren iraupen luzeko langabezia.

Honetan dautza prestazioak: Erakundearen onuradunen aldeko eskubide ekonomikoa aitortzen da, Erakunde horrek estalitako gertakizunak jazo direla-eta. Prestazioen eskubide ekonomikoak eta bazkideak kapitalizatutako aurrezkiak berdinak izango dira.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

Onuradunek era honetan jaso ahal izango dituzte prestazioak gertakizuna gauzatzen den unetik:

- Kapital gisa, ordainketa bakarraren bidez, ondorioak izan dituen egunean bazkideak kontsolidatutako eskubideen zenbateko berean.
- Errenta gisa; aldi batekoa edo bizi artekoa izan daiteke. Inolako bermerik gabeko finantza-errenta edo errenta aktuarial erakoak izan daitezke errenta erako prestazioak, onuradunak aukeratzen duenaren arabera. Azken kasuan, Erakundeak, batetik, errenta aktuarial horiek kobratuko direla bermatuko du, primaren kostua bazkideari egotziz, edo, bestetik, poliza bat formalizatu beharko du aseguru-konpainia batekin, errenta aktuariala ordaintzen dela bermatuz.
- Era mistoan, errenta modalitateak kapital erako kobrantza bakar batekin konbinatuz.

Eskubide ekonomikoak soilik eraman ahal izango dira langilea bazkide oso izan daitekeen beste enplegu-erakunde batera, bazkide babesleentzako zerbitzuak behin betiko burutu direnean eta, urte biko epean, bazkide babesleek ekarpenik egin ez badute. Hurrengo kasuetan ez da aipatutako bi urteko epea igaro beharrik izango:

- Lan harreman finkoa bertan behera geratzea.
- Beste Administrazio Publiko batera joatea.
- Bazkide babeslearen baja.

3. Urteko kontuak aurkezteko oinarriak

a) Irudi leiala

Urteko kontuak Erakundearen kontabilitate-erregistroetatik abiatuta prestatu dira. Indarreko legeriaren arabera aurkeztu dira, eta, zehatzago, Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Segurantzaren sailak Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeetarako emandako kontabilitate-egokitzapenerako arauekin bat etorrira. Horren helburua Erakundearen ondarea eta finantza-egoeraren irudi leiala ematea da.

2007ko abenduaren 31ra arte, Erakundea ez dago urteko kontu bateratuak formulatzera behartuta, Merkataritzako Kodearen 42. artikulua erekin bat etorrira.

Nahiz eta Bazkideen Batzar Orokorra oraindik ez dituen 2007ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak onartu, aldatu gabe onartuko direlakoak dago Erakundearen Gobernu Batza.

Urteko kontuen dokumentuetan jasotako kopuruak mila eurotan adierazita daude.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

b) Partida multzoa

Balantzearen eta galera-irabazien kontua hobeto ulertzearen, horiek batera aurkeztu dira, eta eskatutako analisiak, memorian, dagozkion oharretan, aurkeztu dira.

4. Aplikatutako kontabilitate printzipioak eta balorazio arauak

Urteko kontuak Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei egokitutako Kontabilitateko Plan Orokorrean jasotako kontabilitate printzipio eta balorazio eta sailkapen araeekin bat etorrira prestatu dira, Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren 1988ko abenduaren 12ko Zirkularraren arabera, bai eta erakunde berberak emandako beste zirkular aplikagarri batzuetan jasotako edukiekin bat etorrira.

Erantsitako urteko kontuak ez dituzte jasotzen Eusko Jaurlaritzaren maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuak ezarritako kontabilitate-aldaketak, batez ere inbertsioen balorazio-irizpide berriei dagokienez. Aipatutako Dekretuaren Bosgarren Xedapen Iragankorrean jasotzen denez, kontabilitate-irizpide horiek 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera exijitu ahal izango dira (14. oharra).

Hauk dira aplikatutako kontabilitate-printzipio eta balorazio-arau nagusiak:

a) Zuhurtzia printzipioa

Ez dira kontabilizatu ekitaldia ixterakoan gauzatu gabeko emaitza positiboak. Ohar honetan zehaztutako balorazio-arauen arabera ezarritako galerak (potentzialak ere bai) jakiten direnean erregistratzen dira.

b) Sortzapen printzipioa

Sarrerak eta gastuak lehendabizikoak jasotzeko eskubidea eta bigarrenak ordaintzeko betebeharra sortzen denean aitortzen dira kontabilitateari dagokionez, berdin dela horiek kobratzeko edo ordaintzeko data.

c) Hastapen gastuak

Eratze, hastapen eta kapitalaren anpliazio gastuak horien kostuaren arabera kapitalizatzen dira, eta 5 urteko epean amortizatzen dira linealki. Kapitalizazioa ahalbidetu zuten zirkunstantziak aldatzen direnean, amortizazioan pendiente dagoen zatia emaitzetara eramaten da baldintza horiek aldatzen diren ekitaldian.

d) Ibilgetu ez-materiala

Informatikako Aplikazioak horien erosketa-kostuaren arabera baloratuta azaltzen dira, egindako amortizazioak kenduta. Amortizazioa metodo linealaren arabera kalkulatu da, 3 urteko bizitza baliagarria kontuan hartuta.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

Erakundearen egoitza soziala diren lokalak (1. oharra) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalak laga ditu doan (5. oharra). Erakundearen aldeko erabilera-eskubide horiek ukitutako ondasunen katastro-balioaren arabera baloratu dira. Ibilgetu ez-material bezala erregistratu dira, eta, aldi berean, jasotako diru-laguntza bezala “Hainbat ekitalditan banatu beharreko Sarrerak” epigrafean. Lagapen-epea mugagabea denez, Erakundeak 50 urteko epea hartu du amortizazio linealerako.

e) Ibilgetu materiala

Ibilgetu materialean jasotako ondasunak erosketa-prezioaren arabera baloratu dira, eta hor sartzen dira Ogasun Publikotik zuzenean berreskuragarriak ez diren zeharkako zergak.

Amortizazioa sistematikoki kalkulatzen da metodo linealaren bitartez, dagozkien aktiboen gainean baloratutako bizitza baliagarriaren arabera, horien funtzionamendu, erabilera eta gozamenagatik jasandako depreziazioa kontuan izanda.

Hauek dira Ibilgetu materiala osatzen duten elementuek izandako depreziazioa kalkulatzerakoan erabilitako bizitza baliagarriak.

	Bizitza baliagarri a urtetan
Garraio elementuak	5
Altzariak eta instalazioak	10
Informatika eta datuak prozesatzeko ekipamenduak	3

f) Finantza inbertsioak

Kotizatutako Akzioak eta beste partaidetza batzuk horien erosketa-kostuan baloratuta daude, horri lotutako gastuak barne; horrela, dagozkion Zuzkidura eratzen da finantza-inbertsioen depreziazioagatik, merkatuko balioa erosketa-balioa baino txikiagoa denean.

Kotizatu eta kotizatu gabeko errenta finkoko tituluetan egindako inbertsioak horien erosketa-prezioan baloratu dira, edo, bestela, horien ordainketa-balioan, azken hau txikiagoa balitz. Erosketa-balio eta ordainketa-balioaren arteko diferentzia, urtero amortizatzen da balioaren hondar bizitzaren arabera eta horren errentagarritasunaren gaineko barne-tasarekin bat etorrira.

Egoera balantzeko “Finantza inbertsioak – Errenta finkoko tituluak” epigrafean erregistratutako jaulkipen egituratuak akzio eta beste partaidetza batzuetarako deskribatutako irizpidearekin bat etorrira baloratzen dira (eragiketa muga-egunera heltzean inbertitutako kapitala berreskuratu ahal izatea bermatuta ez dagoela). Ondorio horietarako, merkatu balioa beste alderdiak emandako balorazioaren arabera lortzen da.

Errenta finkoko finantza-inbertsioei dagozkien sorrarazitako interesak eta kobratzeko daudenak, jaulkipenak eta depositu egituratuak egoera balantzeko aktiboaren “Urtaldi-amaierako doikuntzak” epigrafean erregistratzen dira.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

g) Finantza aktibo likidoak

Aldi baterako eskuratutako finantza-aktiboak, berriz saltzeko konpromisoak dituztenak, horien erosketa-prezioan baloratzen dira, eta horien ordaintze edo gauzatze balioa baino txikiagoa da.

Sorrarazita eta kobratzeko dauden interesak, finantzarioki kalkulatuta daudenak, egoera balantzeetako aktiboaren Urtaldi-amaierako doikuntzak epigrafean erregistratzen dira.

h) Sarrera eta gastuak aitortzea

Sarrerak eta gastuak horien sortzapen-aldiaren arabera aitortzen dira kontabilitateari dagokionez, eta ez horien kobrantza edo ordainketaren arabera.

Etekin esplizitua duten errenta finkoko tituluetatik sorrarazitako interesak egunero periodifikatzen dira, eta aktiboaren "Urtaldi-amaierako doikuntzak" epigrafean erregistratzen dira kupoiak kobratzeko egunera arte, Finantza inbertsioen sarreraren kontura abonatuz.

Interesen sortzapen-aldi bakoitzari aplika dakioken interes-tasa likidatu arte jakiten ez denean, sorrarazitako etekinen periodifikazioa egiten du Erakundeak, kalkulatu arte dagokion erreferentzia-indizeak izandako bilakaera oinarri hartuta.

i) Prestazioetarako zuzkidura teknikoak

Erakundearen aurreikuspen-jardueraren ondorioz hartutako obligazioei aurre egiteko eratutako zuzkidurak dira.

Ekitaldi bakoitzean hurrengo hauek dira zuzkidura horiek hornitzen dituztenak: batetik, bazkide osoen kuota eta bazkide babesleen kontribuzioei baliokidea zaien zenbatekoa, eta, bestetik, aurreko ekitaldiaren emaitzen aplikazioa, emaitzen banaketa onartu eta gero. Zuzkidurak estutuen arabera ezarritako prestazioei aurre egiteko aplikatzen dira. Zuzkidura horien bariazioa, ekitaldian, galera eta irabazien kontuan jasotzen da, "zorra" atalean ekitaldi itxierako zuzkidura teknikoak aurkeztuz, eta "hartzekoa" atalean aurreko ekitaldiko zuzkidurak.

j) Erakundeko kideen kuotak eta sorrarazitako prestazioak

Erantsitako galera eta irabazien kontuko "Ekitaldiko kuotak – Erakundeko kideen kuotak" epigrafeak Erakundeko bazkide osoek eta bazkide babesleek, ekitaldi bakoitzean, egindako ekarpenak jasotzen ditu.

Bazkide osoen eskubideak "Zuzkidura teknikoak" tituluaren saldoaren arabera baloratzen dira, horien ekarpen eta prestazioen ondorioetarako.

Ordaindutako zenbatekoak erantsitako galera eta irabazien kontuko "Ekitaldian sorrarazitako prestazioak" kapituluan erregistratzen dira.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

k) Sozietateen gaineko zergaren konturako atxikipenak

Sozietateen gaineko zergaren konturako atxikipenak, hain zuzen Erakundeak lortutako kapital higigarriaren etekinei dagozkienak, erantsitako egoera balantzearen aktiboaren “Kredituak – Zerga eta gizarte kredituak eta beste batzuk” epigrafean aurkezten dira, Erakundeak horiek itzultzeko eskubidea duelako, Euskal Autonomia Erkidegoko Borondatezko Gizarte Aurreikuspen Erakundearen araubide fiskalari buruzko Foru Arauekin bat etorrita.

l) Eragiketak deribatuekin

Erakundeak merkatu antolatuetan kotizatutako produktu deribatu jakin batzuk kontratatzen ditu, inbertsio izaeraz.

Deribatuen kontratazio prezioaren eta segidako merkatu balioen artean sortzen diren desberdintasun positiboak edo negatiboak galera eta irabazien kontuan erregistratzen dira, galerak “Galerak finantza eragiketengatik” epigrafean jasoz eta mozkinak “Mozkina finantza eragiketengatik” epigrafean.

m) Atzerriko moneta

Saldo aktibo eta pasiboak, atzerriko monetan, dibisa merkatuaren batez besteko kanbio ofizialean azaltzen dira balantzean, horren datan, edo, horrela ezean, data horren aurreko azken merkatuko egutegiko egunean. Finantza inbertsioak dibisetan baloratzetik sortutako diferentziak karteraren plusbalio edo minusbalio latentetzat hartzen dira, eta bigarren kasuan, egoera balantzearen “Zuzkidurak” epigrafean erregistratzen dira. Diruzaintzatik datozen diferentziak, direla positiboak edo negatiboak, ekitaldiaren emaitzari abonatzen edo kargatzen zaizkio, hurrenez hurren.

n) Jasotako diru-laguntzak

Erakundea martxan jartzeko eragiketak finantzatzera bideratutako diru-laguntzak (jasotakoak) (12. oharra) horien emakida ofiziala lortzen denean kontabilizatzen dira, eta “Hainbat ekitalditan banatu beharreko sarrerak” epigrafean erregistratzen dira. Ekitaldiaren emaitzari egozten zaizkio 3 urteko epe batean, ondareari dagokionez ustiapen gastuen garrantzi erlatiboaren proportzioan, biak baloratuz hiru urte horietako bakoitzerako.

Erakundearen jarduera gauzatzen den lokalen erabilera-lagapenari dagokionez (5. oharra), diru-laguntza gisa erregistratutako zenbatekoa sarrerei egozten zaie, aktibatutako erabilera eskubideen amortizazioa gauzatzen den proportzio berean.

o) Ingurumena

Erakundearen iritziz, ingurumena babesteari buruzko legeak betetzen ditu. Bestalde, ez da beharrezkotzat jo helburu horretarako zuzkidurarik erregistratzea, ez dagoelako kontu horiei eragin diezaiekeen arrisku edo gertakizun garrantzitsurik, Erakundearen jardueratik.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

5. Ibilgetu ez-materialak

Hauxe izan da Ibilgetu ez-materialen mugimendua 2007. urtean:

	Mila eurotan		
	<u>Kostua</u>	<u>Amortizazioa</u>	<u>Kontabilitate balio garbia</u>
Aplikazio informatikoak:			
Saldoa, 2006ko abenduaren 31n	196	(130)	66
Adizioak	-	(65)	(65)
Saldoa, 2007ko abenduaren 31n	<u>196</u>	<u>(195)</u>	<u>1</u>
Erabiltzeko eskubideak:			
Saldoa, 2006ko abenduaren 31n	476	(19)	457
Adizioak	-	(10)	(10)
Saldoa, 2007ko abenduaren 31n	<u>476</u>	<u>(29)</u>	<u>447</u>
Saldoa, 2006ko abenduaren 31n	<u>672</u>	<u>(149)</u>	<u>523</u>
Saldoa, 2007ko abenduaren 31n	<u>672</u>	<u>(224)</u>	<u>448</u>

“Erabiltzeko eskubideak” epigrafea Erakundearen gizarte egoitza diren lokalei dagokie. Lokal horiek doan laga ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalak, 2005eko urtarrilaren 11n egindako akordioaren bitartez; akordio hori Gobernu Kontseiluak hartu zuen, Ogasun eta Herri Administrazio Sailburuordetzak proposatuta. Erakundeak ondasun horiek Administrazioaren eskura jarri beharko ditu, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak hala eskatzen badio, interes publikoagatik edo Erakundeak bere gain hartutako betebeharrak bete ez dituelako, ondasunon helburu eta horiek mantendu eta kontserbatu beharrari dagokionez.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

6. Ibilgetu materialak

Hauek izan dira 2007. urtean Ibilgetu materialetan sartutako kontuetan egon diren mugimenduak:

	Mila eurotan		
	Saldoa, 06.12.31	Adizioak	Saldoa, 07.12.31
<u>Kostua</u>			
Garraio elementuak	15	-	15
Altzariak eta instalazioak	110	-	110
Ekipamendu informatikoak	65	1	66
	<u>190</u>	<u>1</u>	<u>191</u>
<u>Amortizazioa</u>			
Garraio elementuak	(6)	(3)	(9)
Altzariak eta instalazioak	(15)	(22)	(37)
Ekipamendu informatikoak	(42)	(12)	(54)
	<u>(63)</u>	<u>(37)</u>	<u>(100)</u>
<u>Kontabilitate balio garbia</u>	<u>127</u>		<u>91</u>

7. Finantza inbertsioak

Hauex izan da finantza inbertsioen mugimendua 2007. urtean:

	Mila eurotan			
	Saldoa, 06.12.31	Adizioak	Erretiro eta amortizazioak	Saldoa, 07.12.31
Akzioak eta beste partaidetza batzuk	17.240	33.730	(21.575)	29.395
Egin beharreko partaidetza- ordainketak	(2.300)	(1.835)	-	(4.135)
Errenta finkoko tituluak:				
- Jaulkipen egituratuak	32.568	33.355	(14.190)	51.733
- Errenta finkoko beste titulu batzuk	13.730	27.354	(2.984)	38.100
Zuzkidurak (deduzitzeko)	(355)	(2.441)	335	(2.461)
	<u>60.883</u>	<u>90.163</u>	<u>(38.414)</u>	<u>112.632</u>

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

2007ko abenduaren 31ra arte, 2.000 mila euro daude pendiente ordainketetan, partaidetzen ganean, Arcano Capital I F.C.R.-en, konprometitutako inbertsioko 2.500 mila euroren gain; 1.285 mila euro pendiente daude ordainketetan, partaidetzen ganean, Oquendo SCA SICAR e-n, konprometitutako inbertsioko 1.500 mila euroren gain; eta 850 mila euro, pendiente dauden ordainketetan, partaidetzen ganean, "Electra QMC Development Capital Fund Plc" Funtsean, konprometitutako inbertsioko 2.000 mila euroren gain;

2007ko abendura arte konprometitutako inbertsio guztiak "Akzioak eta beste partaidetza batzuk" epigrafean azaltzen dira.

2007ko abenduaren 31ra arte, "Finantza inbertsioak" epigrafeak dibiseta eskuratutako tituluak jasotzen ditu, hurrengo kontrabaliorekin, eurotan:

	<u>Mila eurotan</u>
Dolar amerikarrak	2.901
Yen japoniarrak	747
Libera esterlina	365
Koroa suediarrik	363
Franko suitzarrak	204
	<hr/> 4.580 <hr/>

Errenta finkoko karteraren ganean aurreikusitako muga-eguna, 2007ko abenduaren 31ra arte, hauxe da:

	<u>Mila eurotan (kontabilitate- balioa)</u>
2008	4.947
2009	2.495
2010	1.490
2011	1.500
2012 eta hurrengoak	72.977
Betiko jaulkipenak	6.424
	<hr/> 89.833 <hr/>

"Errenta finkoko tituluak – Jaulkipen egituratuak" kapituluaren, 39.733 mila euroko eskuratzeko kostua duten jaulkipen jakin batzuk daude. Horien jaulkitzaileak ezeztatze aukera du kontratuko muga-eguna heldu baino lehen, edo, bestela, azken muga-eguna aurreratu egin daiteke, kontratukoari dagokionez, jaulkipenen errentagarritasunaren bilakaeraren arabera.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

“Errenta finkoko tituluak – Jaulkipen egituratuak” kapituluan, finantza erakundeen jaulkipenak jasotzen dira. Horietan, ez dago bermatuta hasierako inbertsio osoa berreskuratuko denik, azpiko alderdi jakin batzuen bilakaeraren arabera. Jaulkipen horien ezaugarriak, 2007ko ekitaldiaren itxieran, hurrengo taulan deskribatzen dira (mila eurotan):

Jaulkitzailea	Eskuratze kostua	Merkatu balioa 07.12.31 (1)	Plusbalioak	Minusbalioak	Azpiko aktiboa	Azken muga-eguna
Société Generale	500	555	55	-	DJ Eurostoxx50 Index	11/05/26
Kutxa	1.000	1.033	33	-	DJ Eurostoxx50 Index	08/09/22
UBS	1.000	1.004	4	-	DJ Eurostoxx50 Index	09/05/26
BBVA	1.000	1.028	28	-	DJ Eurostoxx50 Index	14/03/12
Morgan Stanley	1.000	1.079	79	-	Telefónica akz.	12/03/15
					Total Fina akz.	
HSBC	495	549	54	-	Iberdrola akz.	12/03/26
Consulnor	1.000	1.048	48	-	DJ Eurostoxx50 Index	12/04/10
BBVA	500	474	-	(26)	BBVA akz.	10/04/27
					Repsol akz.	
Kutxa	1.000	780	-	(220)	Privex Index	12/05/04
Morgan Stanley	1.000	984	-	(16)	Banco Popular akz.	12/08/13
					BSCH akz.	
Deutsche Bank	1.000	840	-	(160)	Sanofi Avantis akz.	12/10/25
					Alcatel akz.	
	9.495	9.374	301	(422)		

(1) Jaulkipenaren Erakunde Eragiletik jasotako balorazioak.

2007ko abenduaren 31ra arte, kontabilitatean erregistratu gabeko plusbalio latentek daude, hain zuzen “Errenta finkoko tituluak – Jaulkipen egituratuak” kapitulari dagozkionak, 301 mila euroko zenbatekoan. Dauden minusbalioak, 422 mila eurotan, 2007ko abenduaren 31ra probisionatu dira, aipatutako jaulkipenetan ez dagoelako bermatuta inbertitutako printzipala berreskuratuko denik.

2007ko abenduaren 31ra arte, Erakundeak mantendutako errenta finkoko balioak, aurretik deskribatutako finantza tresnak albo batera utzita, urteko interes tasa nominal bat sorrarazten dute, hain zuzen ere % 1,5 eta % 15 artekoa.

Sorrarazitako etekinak, hain zuzen 2007ko abenduaren 31ra kobratzeko daudenak eta finantza inbertsioei dagokienak, 2.283 mila euroko zenbatekoan daude erregistratuta erantsitako egoera balantzearen aktiboaren “Urtaldi-amaierako doikuntzak” epigrafean.

2007ko abenduaren 31ra arte, Erakundearenak diren errenta finkoko tituluak Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián Kutxan daude, 13.050 eurotan zenbatutako tituluak izan ezik, horiek beste erakunde batzuetan daude-eta.

2007ko abenduaren 31ra arte, “Akzioak eta beste partaidetza batzuk” epigrafeari dagozkion plusbalio latentek daude, 570 mila eurotan. Data horretara, kartera honetan sartutako balio guztiak merkatu antolatuetan kotizaziora onartuta daude, arrisku kapitaleko funts jakin batzuetan dauden partaidetzak izan ezik, hain zuzen 715 mila euroko zenbateko ordainduan.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

2007ko ekitaldian, Erakundeak bere karterako jaulkipen jakin batzuk trukatu ditu, horiei dagozkien kontrapartidekin eta merkatu baldintzetan, 6.500 mila euroko zenbateko nominalean, merkatu baldintza hobekak dituzten jaulkipen berri batzuegatik, epemuga handiago baten truke. Transakzio horietan itxuraz sortutako galera, 1.891 mila eurotan, konpentsatu egin da zenbateko berdintsuko ezohiko kupoen kobrantzarekin; beraz, ez dute inolako eraginik izan ekitaldiko emaitzan.

8. Kredituak

Epigrafe honek Ogasun Publikotik kobratzeko dauden kapital higigarriaren etekinengatiko atxikipenak jasotzen ditu, 2007ko abenduaren 31ra arte.

9. Efektiboa

2007ko abenduaren 31ra arte, "Banketxeak eta kreditu erakundeak" epigrafea Erakundeak finantza erakundeetako kontu korranteetan duen saldoari dagokio; kontu nagusiak Euribor 3 hilabetera erreferentziatutako interes tasa batera ordainduta daude.

10. Gizarte Ondarea

Hauek dira horri buruzko zehaztasunak eta mugimendua 2007ko ekitaldian:

	Mila eurotan		
	Mutua funtsa	Ekitaldiko soberakina	Guztira
Saldoa, 2006ko abenduaren 31ra	30	2.584	2.614
Traspasoa zuzkidura teknikoetara	-	(2.584)	(2.584)
2007ko ekitaldiko soberakina	-	3.164	3.164
Saldoa, 2007ko abenduaren 31ra	30	3.164	3.194

"Mutua funtsa" saldoa Erakundea eratzean Eusko Jaurlaritzak, bazkide sustatzailea den aldetik, emandako zenbatekoari dagokio, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen arautegiak agindutako gutxieneko zenbatekoa estaltzearen.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

11. Zuzkidura teknikoak

Hauxe da epigrafe honen saldoaren mugimendua, 2007ko ekitaldian:

	Mila eurotan
Saldoa, 2006ko abenduaren 31n	63.664
Bazkide babesleen ekarpenak	48.770
Bazkide osoen ekarpenak	1.176
Traspasoak beste BGAE batzuetatik	46
Traspasoak beste BGAE batzuetara	(1)
Ekitaldian ordaindutako prestazioak eta erreskateak	(769)
Zuzkidura teknikoetara traspasatutako 2006ko ekitaldiko soberakina	2.584
Saldoa, 2007ko ekitaldiko abenduaren 31n	<u>115.470</u>

Hauek osatzen dituzte Erakundeko kideen eskubide kontsolidatuak, 2007ko abenduaren 31n: prestazioetarako zuzkidura teknikoen saldoa eta 2007ko ekitaldiko emaitza garbia.

2006 eta 2007ko abenduaren 31n, hauek dira Erakundeko bazkideei egoz dakiekeen ondarearen gaineko daturik adierazgarrienak:

	2007	2006
Partaidetza kopurua	10.611.053,25	6.147.956,40
Partaidetzaren balio unitarioa (eurotan)	11,18	10,78
Ekitaldiko urteko errentagarritasuna	3,75%	5,23%
Bazkide osoen kopurua	74.806	71.986

12. Hainbat ekitalditan banatu beharreko sarrerak

Hauek dira 2007ko ekitaldian epigrafe honi dagokionez izan diren mugimenduak:

	Mila eurotan
Saldoa, 2006ko abenduaren 31n	587
Emaitzei egoztea	(140)
Saldoa, 2007ko ekitaldiko abenduaren 31n	<u>447</u>

Hainbat ekitalditan banatu beharreko sarrera gisa erregistratutako zenbatekoa, 2007ko abenduaren 31n, lokalen erabilera-eskubideak lagatzeari dagokio, eta 447 mila euro da (5. oharra).

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

13. Egoera fiskala

Indarrean den legeriaren arabera, Borondatezko Gizarte Aurreikuspen Erakundeak Sozietateen gaineko Zergapean daude, baina karga-tasa zero da. Ondorioz, jatorrian atxikipen bakarra duten finantza aktiboetan inplizitu dauden etekinen gain egiten zaizkion atxikipenak itzultzeko eskubidea dute. Hala eta guztiz ere, Sozietateen gaineko Zergan erregimen orokorrean dauden subjektu pasiboak exijitu dakiekeen betebeharrak bete behar dira.

Indarrean den legeriak ezartzen duen bezala, ezin da esan zergak behin betiko likidatuta daudenik, harik eta zerga alorreko agintariek aitorpenak ikuskatu arte edo lau urteko preskripzio epea igaro arte. 2007ko abenduaren 31ra arte, sortu zenetik Erakundeari aplikagarriak zaizkion zerga nagusi guztiak irekita ditu zerga alorreko agintariek ikuskatzeko. Ikuskatzen badira, Erakundearen administratzaileek ez dute uste garrantzizko pasiborik sortuko denik.

14. Eusko Jaurlaritzaren maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretura egokitzea

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio, eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailek proposatuta, maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretua argitaratu da 2007ko ekainaren 16an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, eta argitaratu eta biharamunean sartu da indarrean.

Maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren asmoa urriaren 27ko 25/1983 Legearen edukia garatzea da, hurrengo alderdi hauei dagokienez:

- BGAEen prestazio desberdinak eta horien gauzapena aurreikuspen planetan.
- Gizarte aurreikuspeneko aurreikuspen desberdinak, horien sustatzaile den Bazkide Babeslea kontuan izanik.
- Estatutu guztiek bete behar duten gutxieneko edukia.
- Bazkideek eta onuradunek Erakundearen egoerari buruz informatzeko duten eskubidea.
- Gobernu Organoen, Asanblada Nagusiaren eta Gobernu Batzordearen eskumenak, eta azken organo horren eraketa.
- Jardueraren eta egoera ekonomiko-finantzarioaren jarraipenari buruzko administrazio kontroleko eskumenak.
- Funtsak inbertitzeko irizpideak.
- Erakundeko kideenganako informazioa eta babesa hobetzeko neurriak, publizitate jarduerari dagokionez.

Hauek dira aipatutako dekretuaren eragin nagusiak, kontabilitateko printzipio eta balorazio arauak dagokienez:

- Balio negoziagarriak, errenta finkokoak edo aldakorrekoak, horien egite balioetatik baloratuko dira.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

- Higiezinak tasazio balioaren arabera baloratuko dira, eta gutxienez urtero tasatu beharko dira.
- Kredituak egungo balioaren arabera baloratuko dira.
- Ogasun eta Herri Administrazio Sailak errenta finkoa baloratzeko arau espezifikoak ezarri ahal izango ditu, enplegu modalitateko aurreikuspen planetarako, aurreikuspen planaren aktiboan duten iraupenaren arabera.

Lehenengo Xedapen Iragankorrek ezartzen duenez, Erakundeek dekretu horrek xedatzen duenera egokitu beharko dituzte Estatutuak urtebeteko epean, aipatutako dekretua indarrean sartzeko denetik. Horrekin lotuta, balio gabe geratuko dira dekretuaren aurka doazen estatutu-xedapenak eta arauak.

Estatutuak dekretu horretara egokitzean, estatutuak aldatzeko otsailaren 20ko 87/1984 Dekretua beteko da (Bigarren Xedapen Iragankorra).

Aurreko Xedapen Iragankorren arabera, Itzarriren Gobernu Batzak Estatuetan zenbait aldaketa egitea onartu du, 2008ko martxoaren 12an Gobernu Batzak egindako batzarrean, aipatutako Estatutuak maiatzaren 20ko 92/2007 Dekretura egokitzeko. Gero hori Bazkideen Batzar Nagusira eramango da, onar dadin.

Aipatutako Dekretuko bosgarren Xedapen Iragankorrek xedatzen duenez, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera 92/2007 Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoa betetzea exijitu ahal izango da, finantza inbertsioei dagokienez.

Erakundearen asmoa arautegi berrira egokitzeko trantsizio-plan bat gauzatzea da. Plan horretan honako alderdiak sartuko dira, besteak beste: kontabilitateko irizpide eta arauen diferentziaren analisia, trantsizioan aplikatu beharreko irizpideak eta arauak aukeratzea, eta informazio sistema eta prozeduretan behar diren aldaketak ebaluatzea. Beraz, urteko kontu hauek egin diren unean ezin dira baloratu, era osatu eta fidagarri batean, trantsizioaren eragin potentzialak.

15. Bestelako informazioa

- a) Ordainketak Administrazioaileei

Erakundeak ez du inolako kopururik ordaintzen ordainsari gisa, ez du aurrerapen edo krediturik emanda eta ez du obligaziorik hartu, bizitza aseguruaren alorrean, Gobernu Batzordeko lehen ez oraingo kideekin.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENEKO ERAKUNDEA

b) Auditoreen sariak

Kanpo auditoria zerbitzuengatiko sariak, 2007ko ekitaldian, 15 mila euro izan dira. Ekitaldi horretan, ez dira zenbateko osagarriak fakturatu, ez bada auditoria egin duen sozietateak edo horrekin lotutako enpresak emandako beste zerbitzu batzuek adierazitakoa.

c) Plantillako langileak

Hauek dira plantillan dauden langileak, 2006 eta 2007ko abenduaren 31ra arte:

	<u>2007</u>	<u>2006</u>
Zuzendariak	1	1
Teknikariak	2	2
Administrariak	3	3
	<u>6</u>	<u>6</u>

2007ko ekitaldian kontratatutako langile finkoak 6 izan dira.

Hauxe da plantillaren banaketa 2007ko abenduaren 31ra arte:

	<u>Langile kopurua</u>		
	<u>Gizonak</u>	<u>Emakumeak</u>	<u>Guztira</u>
Zuzendariak	1	-	1
Teknikariak	2	-	2
Administrariak	1	2	3
	<u>4</u>	<u>2</u>	<u>6</u>

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

16. Finantzazio taulak

Hona hemen 2006 eta 2007ko abenduaren 31ra arte amaitutako ekitaldiei dagozkien Finantzazio taulak (mila eurotan):

APLIKAZIOAK	2007	2006	JATORRIAK	2007	2006
Ondarea:			Eragiketetatik etorritako baliabideak:		
- Prestazioak eta erreskateak	770	311	- Ekitaldiko soberakina	3.164	2.584
	<u>770</u>	<u>311</u>	- Handiagoa (txikiagoa) – Finantza inbertsioen depreziazio-zuzkiduraren bariozia	2.106	250
Ibilgetu erosketak:			- Handiagoa (txikiagoa) – Eraitza garbia		
- Ibilgetu materiala	1	17	finantza inbertsioak besterendu ondoren	(1.788)	(1.483)
	<u>1</u>	<u>17</u>	- (Handiagoa) – Amortizazioetarako zuzkidurak	113	112
			- (Txikiagoa) – Transferitutako diru-laguntzak emaitzetara	(140)	(226)
Gehitze edo gutxitze garbia:				<u>3.455</u>	<u>1.237</u>
- Finantza inbertsioak	52.067	42.624	Ondarea:		
- Efektiboa	(511)	(8.885)	- Asoziatu kuotak	49.946	33.857
- Kredituak	(541)	175	- Traspasoak beste BGAE batzuetatik	46	52
- Urtaldi-amaierako doikuntzak	1.638	516		<u>49.992</u>	<u>33.909</u>
	<u>52.653</u>	<u>34.430</u>			
			Gehitze edo gutxitze garbia:		
			- Zorrak	(23)	(388)
APLIKAZIOAK GUZTIRA	<u>53.424</u>	<u>34.758</u>	JATORRIAK GUZTIRA	<u>53.424</u>	<u>34.758</u>

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

2007KO EKITALDIKO KUDEAKETA TXOSTENA

ERAKUNDEAREN BILAKAERA ETA EGOERA

ITZARRI Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluaren Erabakiz eratu zen, 2004ko uztailaren 27an. Horren bidez, gizarte aurreikuspen osagarriaren alorrean, maiatzaren 6ko Mahai Orokorraren erabakian, hartutako konpromisoa bete zen, 2003 eta 2004 urteetarako ordainsari gehikuntzari buruz.

Aipatutako Gobernu Erabakiaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionala osatzen duten erakundeek ITZARRI Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Bazkide Babesle gisa egituratzen dira. Horrekin lotuta, soldata-masaren portzentaje bat konprometitzen dute, urtero ezarriko denez, erakundeari egingo dizkieten ekarpenak finantzatzeko. 2004ko ekitaldirako, ekarpen portzentajea % 0,5ean finkatu zen; 2005erako % 0,5 osagarri batean, hau da, % 1; eta 2006rako beste % 0,5 osagarri, % 1,5ean kontsolidatuz; azkenik, 2007ko ekitalditako ezarritako ekarpenaren portzentajea % 2 da.

Ekarpenak, guztira, 2007ko abenduaren 31ra, 49.946 mila euro izan dira. 2007ko gehikuntza, 2006ari dagokionez, % 47,52 izan da.

Jasotako ekarpenetatik, 769 mila euro hurrengo prestazioei aurre egiteko bideratu dira: erretiroagatik 530 mila euro; ezintasunagatik 156 mila euro eta heriotzagatik 83 mila euro.

Bazkide Osoak 74.806 izan ziren 2007ko abenduaren 31ra.

Bazkideen mugimendua 2007ko ekitaldian

	<u>Gizonak</u>	<u>Emakumeak</u>	<u>Guztira</u>
Hasieran	25.710	46.276	71.986
Altak	1.088	2.467	3.555
Bajak	300	435	735
Azkenean	<u>26.498</u>	<u>48.308</u>	<u>74.806</u>

Eskubide kontsolidatuen gehi ekitaldiaren soberakinaren balioa, 2007ko abenduaren 31ra, 118.634 mila euro izan da. Urte horretan, 3.164 mila euroko mozkin garbia lortu da, gehi inbertsio karterako plusbalio latente batzuk 871 mila euroko zenbateko batean. Horrela, ekitaldian lortutako errentagarritasuna % 3,75era heldu da. Ondarean 10.611.053,250163 kontu-unitate daude, bakoitza 11,180167 euroko likidazio-balio batekin.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

Finantza-merkatuei dagokienez, burtsek hegazkortasun eta gorabehera handiko urtea izan zuten; baina azken balantzea positiboa izan da, eta joerak argiak. Urtea joera positibo batekin hasi zen, batez ere lehenengo hiru hilabeteetako enpresa-emaitza onak, korporazio-mugimenduen jarraipenak eta hazkunde sendoak eraginda, Ameriketako Estatu Batuetan izandako moderazioa gorabehera. Hala eta guztiz ere, ekitaldiko bigarren zatian, munduko burtsek zuzenketa garrantzitsuak izan zituzten, inbertsio-egileek arriskuari zioten abertsioak gora egin zuelako (konfiantza krisia), batetik, AEBn arrisku handiko (subprime) hipoteken gainean sortu zen arazoagatik, eta, bestetik, horren osteko kreditu-krisiagatik; izan ere, azken horrek handitu egin zuen Amerikako Estatu Batuetako ekonomiaren moteltze (edo atzeraldia) handiaren gaineko kezka.

Mendebaldeko herrialdeen artean, burtsa-joera onena Alemaniako Daxena izan zen, hain zuzen ere % 22,29ko igoera, Espainiako Ibex-35 indizea baino askoz handiagoa (azken horrek % 7,32ko igoera izan zuen). Euro gunearen erreferentzia nagusia den Eurostoxx 50 indizeak Ibex indizearen joera berdintsua izan zuen, % 6,79 igoz. Bestalde, Amerikako Estatu Batuetako S&P 500 indizeak % 3,53ko errebalorazioa izan zuen eta Japoniako Nikkei indizea izan zen, orokorrean adierazgarrienak diren indizeen artean, gutxien errebalorazitu zena; gainera, azken horrek, joera negatiboa izan zuen, % 11,13 jaitsiz.

Kreditu-krisia gorabehera, munduko hazkunde ekonomikoa sendo mantentzen zen, batetik, garatzeko bidean dauden herrialdeen aurrerapen handiagatik, eta, bestetik, Europako ekonomiaren bilakaera onagatik, Amerikako Estatu Batuetan inoiz ikusi gabeko desazelerazio handiena konpentsatuz. Amerikako Estatu Batuetan, higiezinaren sektorearen atzeraldia larritu egin zen kreditu-krisiagatik. Izan ere, horrek areagotu egin zuen munduko lehenengo ekonomiaren atzeraldia potentzial batekiko kezka, nahiz eta enpleguak eta kontsumoak neke zantzurik erakutsi ez. Europan, aldiz, makro datuak bilakaera ekonomiko osasuntsua erakusten zuten, nahiz eta inflazioa EBZen helburuen gainetik mantendu.

Zor publikoak babes-aktibo gisa jarduten zuen urtearen bigarren erdian, yield delakoen beherakada garrantzitsua eraginez, inbertsio-egileek arriskuari zioten abertsio handiago baten aurrean. Era berean, batetik, Amerikako Estatu Batuetako ekonomian, kreditu krisiaren eragin potentzialaren gaineko zalantza handiagoa, eta, bestetik, interes-tasen beherakada, EGAFen aldetik, Europan horiek mantentzen ziren bitartean, euroaren errebalorazio handia eragiten zuten, dolarren aurrean (%-11). Europan, EBZ moneta-merkatuetan arazoak leuntzen ahalegintzen zen (spread delakoen gorakada handiak versus tasa ofiziala), likidezia injekzioekin. Horiek tentsioak partzialki gutxitzea lortu zuten, batez ere bihurtuaren epe laburrean.

Dibisen merkatuari dagokionez, aurreko paragrafoan aipatuenez, dolarrak, euroaren aurrean, deprezio handiko ekitaldia bizi izan zuen berriro, 1,458 \$/€-ko maila batera iritsi arte, urte hasierako 1,318 \$/€-ko maila batetik. Hori izan zen, batez ere, monetaren alorreko agintari gorenak (EGAF eta EBZ) interes-tasari dagokionez gauzatuak jarduketara desberdinagatik.

Petrolio gordinaren prezioak igoera handia izan zuen (% 56) ia 100 dolarretara iritsi arte upeleko, mundu mailako hazkunde mardularen eskaera handiaren aurrean, batez ere garatzeko bidean dauden herrialdeek, LPEEn eskaintza murriztaileak, Amerikako Estatu Batuetako erreserba eskasek eta arrisku geopolitikoagatik primak lagunduta.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA


Balantze sektoriala ziklo ekonomikoaren eraginpean egon diren konpainiek (autoak, oinarrizko industria, metalgintza eta meagintza,...) lideratu dute, bai eta sektore defentsiboek eta kontsolidazio potentzialeko konpainiek; hala ere, kreditu-krisiarekin era nabarmen batean gutxitu zen iragarritako korporazio-mugimenduen kopurua, arrisku kapitalaren funtsek egindako erosketa apalankatuei lotutako bonoen kolokazioagatik kezkaurrean. Kontrako aldean, higiezin sektoreak eta finantza-erakundeek (bankuak eta aseguratzaileak) zigortuenak ziren subprime krisiaren eraginaren aurrean; izan ere, era negatibo batean eragiten ziren erakunde guztiei, nahiz eta zuzenean aktibo mota honen eraginpean egon edo egon ez.

Aipatutako testuinguru horretan, ITZARRI Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko erakundeak 2006. urtean hasitako inbertsio-politikari jarraitu dio, hain zuzen ere kartera dibertsifikatzea, errentagarritasun erakargarriak eta jasan daitezkeen arrisku mailak bilatuz. Urteko lehenengo zatian, esposiziorik handiena lortu da errenta aldakorrean, %30etik hurbil dauden mailetara heldu arte (bere inbertsio politikan baimendutako gehienekoa), gero, batez ere azken hiruhilekorik aurrera, estrategia kontserbadoreago bati ekiteko, metatutako etekinak gordetzen ahaleginduz.

Errenta finkoan egindako inbertsioa errentagarritasun erakargarriko egituren eta arrisku/errentagarritasun profil oneko konpainien bonoen artean dibertsifikatuz egin da.

2007ko ekitaldia kontsolidazio eta hazkunde ekitaldia izan da, biak batera, hasi edo sortu eta abiatu osteko bigarren urtea delako. Horregatik, egindako inbertsioetan hasierako pausoak ematen dituen erakunde orori aplikagarriak zaizkion segurtasun eta zuhurtzia printzipioak ikusi dira, Gobernu Batzordeak ezarritako irizpideei jarraituz.

Finantza-inbertsioak 112.632 mila eurora iritsi dira, 2007ko abenduaren 31ra arte; horietatik 29.395 mila euro akzioei eta beste partaidetza batzuei dagozkie, eta, horietatik, 4.135 mila euro partaidetzen gainean pendiente dauden ordainketei dagozkie; 79.555 mila euro errenta finkoko tituluei dagozkie (finantza-aktibo egituratuak barne); 10.278 mila euro epe laburreko likidezia duten aktiboek dagozkie eta 2.461 mila euro zuzkidurari.




2007ko abenduaren 31ra arte, erakundeak ez dauka inbertsiorik bazkide babesleek jaulkitako aktiboetan.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

Hurrengo grafikoan, akzio eta beste partaidetza batzuen banakapena egin da 2007ko abenduaren 31ra.




Errenta aldakor zuzenean egindako inbertsioaren banaketa geografikoari dagokionez, % 5,23 Espainiako Burtsan inbertitu da; % 4,29 Euro gunean (gehi Suitza eta Ingalaterra) eta % 0,33 Ameriketako Estatu Batuetan (portzentaje horiek inbertsio-karterari dagozkionak dira). ITZARRI Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak kudeatzen du inbertsio guztia.



ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

Inbertsio-funtsetan izandako partaidetza inbertsio osoaren % 11,52 da; errenta aldarreko inbertsio-funtseten portzentajea % 3,99 da, eta, horiek nazioarteko merkatuetan daude gauzatu, hain zuzen Europa, Japonia eta Amerikako Estatu Batuetan.



Hau da inbertsio-karteraren balorazioa egiteko erabili den irizpidea: Errenta Finkoko aktiboak eskuratze-prezioan; Errenta Aldakorra eta dibisa posizioak probisionatzen dira baldin eta Burtsan duten trukea edo kotizazioa dibisa merkatuan, eskuratze-prezioa baino txikiagoa bada. Inbertsio-funtsetako partaidetzak errenta aldakorra baloratzeko erabilitako irizpide berberarekin baloratzen dira, baina merkatu balioztat horien likidazio-balioa hartuta.

Egitura eta kudeaketa gastuak, 2007ko ekitaldian, 749 mila eurora iritsi dira, eta, horrekin lotuta, bazkide osoek euren gain hartutako gastuaren portzentajea ondarearen gaineko %0,63 da. Baina Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntza aplikatu ondoren, gastu horiek 609 mila eurora gutxitu dira, eta horrek dakarren gastu-ratioa ondarearen gaineko % 0,51 da.

2007KO EKITALDIAREN ALDERDI GARRANTZITSUAK

Alderdirik garrantzitsuena eta nabarmenena, aurreko ekitaldian bezala, honako hau izango litzateke: urte honetan beste aurrerapauso bat eman da ITZARRI Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea sendotzeko, duela bi urte sortu zenetik. Etorkizuneko proiektu handi bat sendotu da, eta, batez ere, eta are garrantzitsuagoa dena, finkatu egin da bazkide osoen konfiantza, era profesional batean lan eginez euren pentsioari osagarri bat bermatzeko erretiratzen direnean, eta hori guztia ahalik eta ilusio, dinamismo eta malgutasun handienarekin.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

Nabarmentzekoa da, era berean, Epaitegi Gorenak ELA Sindikatuak jarritako kasazio errekursoaren aurka emandako ebazpena eta epaia. Errekurtso hori ITZARRI Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen eratzte eta hasierako osaeraren aurka jarri zen. Emandako ebazpenarekin, aipatutako auzia behin betiko amaitu da Erakundearen alde.

Merezi du aipatzea, bestalde, egitura eta kudeaketa gastuek portzentajearen dakarten gutxipena ondarearen gainean, aurreko ekitaldiari dagokionez; horrela, ia erdira gutxitu da, eta % 1,02tik % 0,63ra igaro.

Azkenik, adierazi behar da 2007ko ekainaren 16an, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen jardura jakin batzuk arautzen dituen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretua sartu zela indarrean (eta aldi berean, otsailaren 20ko 87/1984 Dekretua aldatzen duena). Dekretu horrek arau batzuk ezartzen ditu Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeentzat (eta, beraz, zuzenean aplikatuko da ITZARRI Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen), bazkideen eskubideak eta bermeak hobetzeko eta konfiantza eta gardentasuna irabazteko helburuaz; horrek, luzera, hobekuntza ekarriko du sektorearentzat eta sektoreko kideentzat.

2008RAKO PERSPEKTIBAK ETA BILAKAERA

2008. urte honetan, gure ustez, Bazkide Babesle gehiago batuko da, eta beraz, Bazkide Osoen kopuruak haziz jarraituko du. Gainera, ondarearen hazkunde esponenzialak ere gora egingo du, Bazkide Babesleen ekarpenaren portzentajea finkatu eta sendotu egingo delako. Izan ere, hori, 2008. urtean, %0,5 osagarri bat haziko da, iragan ekitaldikoari dagokionez, beraz, %2,5ean kokatuko da.

Erakundearen inbertsio-karteraren egiturari dagokionez, aldatu egingo da ekitaldian zehar, baina, jakina, beti mantenduko du bizkarrezur bat, finantza merkatu desberdinen bilakaeraren arabera; hau da, inbertsioaren kudeaketa lan aktiboa eta oso malgua egiten jarraituko da, merkatuen bilakaeraren arabera egokituz eta erreakzionatzeko ahalmen handia mantenduz jazo daitezkeen gertakizun guztien aurrean. Kudeaketa malgu eta aktibo horrek berebiziko garrantzia izango du aurten, oso hegazkorak diren merkatuak itxaroten ditugulako, eta horien aurrean erreakzionatu egin behar da (eta garrantzitsuagoa dena, erreakzionatzeko ahalmena izan behar da) eta horietan sortutako mugimenduetara egokitu behar dugu, ahalik eta azkarren eta bizkorren.

ITZARRI, ENTIDAD DE PREVISIÓN SOCIAL VOLUNTARIA

2007KO EKITALDIKO URTEKO KONTUEN ETA TXOSTENAREN FORMULAZIOA

Itzarri Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Batzordeko kideek 2007ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagozkion urteko kontuak (egoera balantzea, galera eta irabazien kontua eta memoria) eta kudeaketa txostena formulatu dituzte, 2008ko martxoaren 12an. Kide guztiek orri honetan sinatu dute, bat datozela adierazteko. Era berean, Gobernu Batzordeko Idazkariak ere sinatu du aipatutako dokumentuen orri guztietan, identifikatze aldera.

SINATZAILEAK

SINADURA

Idoia Zenarrutzabeitia Beldarrain andrea
(Lehendakaria)

José María Endemaño Arostegui jauna

Gloria Quesada Menendez andrea

Javier Garayalde Vélaz jauna

Abel López de Aguilera Quintana jauna

Igone Martínez de Luna Unanue andrea

Mikel Ortega Abad jauna

Pablo Ruiz de Gordejuela Urquijo jauna

Luis Manuel Aguirre Elustondo jauna

Arkaitz Valentino jauna

Izaskun Gana Goikouria andrea

Carlos Martínez de Morentin jauna

Ohian Ostolaza jauna

Mariano García jauna

José Antonio de Leniz Aspiazu jauna

Eduardo García Elosua jauna
(Idazkaria)
